

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



*Aurreko astelehene-
an herritarrekin
ospatu zuten men-
deurrena; asteburu
honetan ekitaldi
instituzionala eta
herri antzerkia*

2015eko urtarrilaren 30a, 426 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

ANDOAINDARRAK 400, OSPAKIZUN BETEAN

Herri antzerkia Basteron, igandean

Eguerdiko hamabietan
hasita, dozenaka parte
hartzailerekin.

Herri antzerkiko partaideak azken entseguetan murgilduta daude, xehe-tasun guztiak lotzen. Basterora bertaratzen denak ordubeteko ikuskizun atseginaz gozatu ahal izango du. Sarrerren salmenta arin doanez, komeni da aldez aurretik erostea Basteron bertan. Urteurreneko ekitaldi esanguratsuenetakoa izango da.

[LANDOAIN, 4-5. ORRIALDEAK]



Miren Gojenola zuzendaria, paperak eskuan, astearteko entseguan. Alboan ditu antzezle talde osotik bost lagun. Ezker eskuin, Iñaki Martiarena, Maialen Letamendi, Joxeba Lizeaga, Helena Zubillaga eta Joxe Joakin Esnal.

Krosa Urnietan, igandean

Igande honetan On Bosko lehen krosa Urnietan, ikastetxearen 50. urteurrenaren harira antolatutako proba. 14 urtetik gorakoek parte har dezakete lasterketan.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

Mikel Pagola, alkategai

Urnietako EAJ-PNV alderdiak aho batez egungo alkatea proposatu du alkatetzarako.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Urnietatik Leitzara, eguzkia lagun

Nekeak neke, elurrak
elur, irteera bikaina.

46 lagunek osatu zuten Urnieta eta Leitza arteko zeharkaldia; 8 orduz luzatu zen ibilaldia, elurra-
ren erruz. Uste baino nekezagoa
eta luzeagoa, baina Zanpatuz
mendi elkartearen lehen iteera
bikaina izan zen. Besabi zeharka-
tuz, eta Maite Begiristainek jarri-
tako erritmo bizian Eteneta eta
Aitzolako iturrira iritsi ziren, bi
ordu eta erdian. Handik aurrera
gaiztotu egin zen martxa.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]



Zortzi orduko ibilaldia egin zuten aurreko igandean, Urnietatik hasi eta Leitzara arte.

Parte hartze prozesua

Andoaingo Udalak sei bilere-
tan herri osora zabaldu nahi
izan du Udal jarduerari bu-
ruzko informazioa.

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

EGAPE IKASTOLA
BIZITZARAKO HEZKUNTZA

MATRIKULA ZABALIK!

OTSAILAREN 2tik 13ra



BILERAK 2 URTEkoentzat: otsailak 2, Etxeberri Plaza, 17:00 h.

BILERAK DBHkoentzat: urtarrilak 28, Azkorte, 17:00 h.

WWW.EGAPE.ORG



Bigarren eskuko azoka Zubitxon, otsailaren 7an

Urnietan “Belaxen” izeneko elkarte berria sortu da eta antolatuko duten lehen ekitaldia bigarren eskuko merkataritza azoka izango da.

Goizeko 10:30ean hasita eta eguerdiko 14:00ak arte herritarrek eta merkatariek

bigarren eskuko produktuak eta arropak saldu edo trukatuhahal izango dituzte Zubitxo plazan.

Elkarte berriak dagoeneko buruan du hurrengo ekimena, artisautza azoka antolatzeara.



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Seminarioan iraultza

Eliz barrutia zatitzearekin batera hasi nintzen ikasten seminario berrian; profesoreak egin gabeak ziren, oso txarrak alegia. Bat edo beste izan genituen marka utzi zigutenak: Sebastian Goñi, Rikardo Alberdi, J. Altuna, Telletxea eta J. M. Mujika; azkeneko hau izan genuen arrakastatsuenak. Teologian bere ikasketa bereziak eginda etorri zen eta gure zaindari jarri zuten gainera. Asko zekiena bakarrik ez, ausarta gainera.

Erakusgaietan zer zen legalismoa eta zer fariseismoa esan zigun; legea betetzea, besterik gabe, zela beharrezko, gogo txarrez beteko bazen ere ez ziola ajola, automatikoki on egingo zigula; Jesukristok, berriz, zion bihotzez egindakoa zela baliagarri.

Horretan, esan genion Mujikari: “hau errepikatzen ari gara Seminarioan, fariseoak izaten ikasten. Gauza denak kunplitzen, esaneakoak izaten, betebeharrak guztiei men egiten, hori zela prestaerarik onena apaiz izateko”. Baina Seminarioak nahi zuen, hitzez behintzat, gure kasa inongo bijilanterik gabe lan egingo genuenak izatea, liburuak irakurri, jantziak izan, eta hori gauza guztietan. Esandakoa eginez gero nahikoa zen, ez zen beharrezko konbentzituta egotea, baloreetan kezka bizi bat edukitzea ez zen beharrezko. Gure barrera piztu eta landu ordez, festa egun batean ere, igande bakoitzean, minutu guztietan zer egin behar genuen seinatzen ziguten. Gure egitekoa zen obeditzea. “Eta gure apaiz bizitzan enkargatu-biji-

lantea gurekin eramango al degu?” Ez, noski, apaiz egitean: “helduak zerate, moldatu jator!”

Apaiz egin bitartean ez ginen ezer ere, gurekin ez zegoen fidatzerik; gero, egun batek bestera, ahuntzak mendira botatzen diren bezala, “konpon hadi hil artean, ondo formatuta hago eta!” Konbentzituta al geunden apaiz izateko, gure kasa eguna eratzeko, bijilanterik gabe responsablea izateko, nortasun bat izateko, baldin 12 urtetan beste era batean heziak izanda?

Mujikari esan genion: “festa egun batean utzi gaitzazu libre, eguna gure esku utzi eta ez bijilatu”. Zer gertatu zen? Festa egun hori egun osoa musean pasa genuela, mezetara ere ez ginela joan. Eliz barrutiko apaizak eskandalizatu-ta gelditu ziren. Baina oso probetxagarria izan zen, oso onak ginela uste eta ezer ez eta festa! Jabetu ginen bai goikoak eta bai behekoak ez genekielako ez denbora aprobetxatzen, ez responsableak geure buruarekin izaten, konbentzituta ezerekin ez geundela, eskatzen zitzaiguna kunplitzea zela gure egitekoa, baita gogo txarrez eginda ere.

Seminarioetan gertatu zen iraultzarik handiena honela gertatu zen. Urte horretan bertan batzuek alde egin zuten eta beste batzuek ordenatu eta laster utzi zuten. Eta batzuek jarraitu egin genuen, hori bai, geure kasa bizitza hartzen ikasiz. Gai guztietan geure buruari galdetuz: zergatik ikasten jarraitu? Zergatik ez ezkondu? Zergatik pobre bizi? Zergatik abertzale izan, ez direnak errespetatuz?

Ostegun honetan hitzaldia eta larunbatean biktimen lekukotza

“Bakea eta bizikidetza” jardunaldien edizio berria



Udal ordezkariak eta Baketik erakundeko kideak, jardunaldien aurkezpen ekitaldian.

Datozen egunetan “Bakea eta bizikidetza: sufrimentuetara hurbilduz” jardunaldiak egingo dituzte Urnietan, aste honetan hasi eta martxora bitartean. Aurten sufrimenduetara gerturatu nahi dute, eta horretarako, hitzortu erakargarriak antolatu dituzte.

Iaz iragana, oraina eta geroa landu ziren, eta lanketa horretan parte hartu zuten herritarrek, datozen urteei begira, biktimen eta sufrimenduaren gaia jorratzea eskatu zuten. “Sufrimendua landuko dugu, baina hurbilpen bat soilik izango da; zoritxarrez, sufrimenduak ugari direlako eta ekimen gehiago egitea beharrezkoa delako”, adierazi zuen **Mikel Pagola** alkateak Udaleko ordezkari guztien izenean.

Iazko jardunaldien irakurketak oso positiboak egin zuten. Herritarren parte hartzea handia izan zela eta aurtengoan ere hala izatea espero dute, “herritarrik gabe jardunaldiak zentzurik ez dutelako”.

JARDUNALDIAK OSTEGUN HONETATIK AURRERA

Hasteko, urtarrilaren 29an, ostegunarekin, hitzaldi bat izango da sufrimenduetara gerturatzeko helburuarekin. Sufrimenduen inguruan hitz egiterakoan “kategoria eta aurrekaritzi asko izaten ditugu”, horregatik, hitzaldi baten beharra ikusi dute, pertsonaren giza duintasuna erdian jartzeko. “Ezinbestekoa da ikustea urraketa guztien gainetik eta azpitik duintasuna ere badagoela”,



ETAk hildako Froilan Elesperen seme Josu Elespe lasartearra.

azaldu zuen Baketik erakundeko **Iker Uson**ek.

BIKTIMEN LEKUKOTZAK LARUNBAT HONETAN

Larunbat honetan biktimen testigantzak ekarriko dituzte Urnietara. ETAk hildako Froilan Elesperen seme Josu eta GALEk hildako Joxi Zabalen arreba Pili, Saroben hizlari ari-tuko dira.

Bestalde, jardunaldiak amaitzeko, “ekimen dinamikoa eta berritzaileagoa” egingo da: antzerki foruma. Donostia 2016 Hiri Kulturalaren baitan hainbat hiritan egingo den egitasmoa da. Berradiskidetzaren inguruko antzezpen labor bat egingo dute, 20 minutu ingurukoa, eta ondoren, debata egingo da. “Merezi du hurbiltzea, ez delako antzezpen huts bat, herritarrek parte hartzeko aukera izango dutelako”. Otsailaren 7an euskaraz izango da eta martxoaren 28an gaztelaniaz.

Jardunaldietako izen-ematea Bertan arreta zerbitzua bakejardunaldiak@urnieta.eus



GALEk hildako Joxi Zabalen arreba Pili Zabala tolosarra.

Larunbatean biktimen testigantzak ekarriko dituzte. ETAk hildako Froilan Elesperen seme Josu eta GALEk hildako Joxi Zabalen arreba Pili Saroben hizlari ari-tuko dira

LEHEN HITZORDUAK

Urtarrilak 29, osteguna

19:00 Aurkezpena

19:15 Hitzaldia: “Bizitzako sufrimendu faktorearen errealitate hurbiltzea”.

Hizlaria: Iker Uson (Baketik).

20:00 Kafe-hizketaldia.

20:30 Hizlariarekin so-lasaldia.

21:00 Amaiera.

Urtarrilak 31, larunbata

11:00 Aurkezpena.

11:15 Testigantzak: Pili Zabala, Josu Elespe.

13:00 Amaiera.

AMAIA VAZQUEZ SEXOLOGO ETA PSIKOLOGOARI ELKARRIZKETA

Haurren jokaerak ulertzen ikasteko tailerra

Aita eta ama izatea errazago izan dadin eta seme-alaben jokaerak ulertzeko helburuarekin, bizikidetza dinamika positiboa nola gauzatu erakutsiko duen tailerra antolatu du Urnietako Udalak. Amaia Vazquez sexologo eta psikologoak gidatuko du eta, bost saiotan zehar, haurtzaroko heziketa izango du hizpide.

rra antolatu du Urnietako Udalak. Amaia Vazquez sexologo eta psikologoak gidatuko du eta, bost saiotan zehar, haurtzaroko heziketa izango du hizpide.

Tailerrean haurren garapena izango da protagonista, baina zer da zehazki landuko dena?

Amaia Vazquez. Haurren garapen psikoafektibo-soziala landuko da. Gai ezberdinak landuko ditugu, baina helburu nagusia umea zer den ulertzea izango da. Gizarte honetan emozioei leku gutxi uzten zaie, eta askotan, umeen behar emozionalak ez ditugu kontuan hartzen. Horregatik, tailer honen helburua haurra zer den ulertzea da; zergatik haur batek jarrera eta joera batzuk dituen, zergatik kasketak harra-patzen dituen, zergatik ez duen jan nahi, zergatik egin nahi duen lo gurasoekin... Azken batean, gurasoei kezka sortzen dieten gaiak landuko ditugu.

Zein dira gurasoei kezka sortzen dieten gai horiek?

A.V. Lo, jana, harremanak, eskola, jolasa, heriotza, haserrea nola kudeatu, pixa eta kakaren kontrola, lagunen arteko istiluak... Sexua ere jorratuko dugu. Sexualitateaz asko hitz egingen dugu, oso presente dagoelako haurren bizitzan.

Nola lortzen da bizikidetza dinamika positiboa?

A.V. Guraso eta seme-alaben artean enpatia jorratuz. Enpatia lantzeko, besteari begiratu behar diogu; horregatik, umea ulertzen hasi behar dugu. Gurasoei beti haurren atzetik joateko esaten diegu, aurretik joaten badira, ez dituztelako umeak ikusten. Haurrei esperimintatzen utzi behar zaie, ikusteko eta ulertzeko. Hori eginda, sarri aurrean kokatu beharko dute mugak jartzeko. Mugaren gaia asko landuko dugu; izan ere, haurrek dena nahi dute eta, era berean, ez dakite zer nahi duten. Horregatik, gurasoei erakutsiko diegu non dagoen muga edo noiz jarri behar duten haurren aurretik.

Nola landuko dira gai horiek guztiak?

A.V. Oso metodologia aktiboa



Amaia Vazquez arituko da guraso taldearekin lanean.

“Mugaren gaia asko landuko dugu; izan ere, haurrek dena nahi dute eta, era berean, ez dakite zer nahi duten”

erabiltzen dut. Egoera bat jarri edo beraiek proposatzea gustatzen zait. Ea zein arazo edo korapilo dituzten galdezten diet; izan ere, teoriari buruz hitz egin dezaket, baina beraiek zein zailtasun dituzten jakin eta horiek aztertzea interesatzen zait. Egoera praktikoa horiek hartuta, teorizatu egingen dut eta baliabideak ematen ditut. Beraz, adibide errealetatik abiatzen garenez, oso praktikoa da. Gainera, sekretu profesionala mantentzea eskatzen diet parte hartzaileei, tailerrean aipatutako guztia bertan gera dadin. Modu horretara, gurasoak lasai hitz egin dezakete.

Tailerra eraginkorra izango da edonorentzat, ezta?

A.V. Noski, aita edo ama izaten inork ez digu erakutsi. Funtzio biologiko natural bat dela pentsatzen dugu, baina ez da. Hel-

duen beharrak beti dira haurren beharrak baino garrantzitsuagoak. Gainera, haurtzaroko garrantzia handia du, 0-8 urte bitarteko aro horretan ezartzen delako gure izaeraren muina. Hau da, nerabezaroran edo helduaroan nolakoak izango garen jada ezarri da haurtzaroran. Beraz, tailerra 0-8 urte bitarteko haurrak dituzten edonorentzat da eraginkorra.

Haurren jokaera bezain garrantzitsua al da gurasoena?

A.V. Familia bakoitza mundu bat da eta familia bakoitzak bere heziketa estiloa dauka. Gu beti tailerrera joaten diren aita eta amak errespetatzen saiatzen gara. Egia da, dena den, haurrei buruz hitz egingen ari garenean, gurasoak hausnarketa prozesu batean sartzen direla. Bakoitzak bere buruan pentsatu behar du; jakin behar dute nola jokatzten duten eta zein paper duen beraien haurraren problematikaren aurrean. Ez badakigu gure seme edo alabak kasketa bat zergatik harrapatu duen, gurekin jolasten dabilela uste dugu eta “honek ezin nau toreatu” pentsatuz posizionatu egingen

“Tailerra 0-8 urte bitarteko haurrak dituzten edonorentzat da eraginkorra. Aro horretan ezartzen da haurren izaeraren muina”

gara. Hori egin ordez, beraien buruaz eta jokabideez hausnarrarazten saiatzen naiz; nondik datozen, nolako hezkuntza jasotzen... Hau da, gurasoek beren burua beti kolokan jarri behar dute.

Nolako gurasoak joan ohi dira horrelako tailerretara?

A.V. Gehienetan arazo gutxien dituzten gurasoak joaten dira. Azken finean, arazoak dituzten gurasoak ez dira kontziente eta formato honetako tailerretara etortzen direnak kezka eta interesa dutelako agertzen dira, ez etxean arazoak dituztelako. Nolako hezkuntza ematen duten eta nolako eredu izan nahi duten hausnartu nahi izaten dute.

TAILERRA:

Otsailak 16, martxoak 16, apirilak 13, maiatzak 6 eta 11. Orduetgia: 14:30-16:00.



Mikel Pagola, alkategai

Agintaldi honetan alkate lanetan aritu den Mikel Pagola berriro ere EAJ-PNVko alkategai izango da. Hala erabaki zuen aurreko ostiralean, aho batez, Urnietako jeltzaleen herriko batzordeak.

Denda Berriren batzar nagusia

Talde eragileak batzar nagusia deituko du, arratsaldeko 16:30etatik aurrera. Iazko gastu eta sarreraren balantzea, aurtengorako jarduera programa eta aurrekontua eta zuzendari-tzaren informazioa eskainiko dituzte jendaurrean.

Twitter eta Facebook erabiltzen ikasteko saioak

KZguneak teknologia berriei buruzko doako ikastaroak eskaintzen jarraitzen du. Twitter eta Facebook sare sozialak bolo-bolo dabilta askoren ahotan. Bada, bi horien erabilera ezagutzen ez duenak ikasteko aukera izango du otsailean, KZ Gunean. Saioak gaztelaniaz eskainiko dituzte.

OTSAILAREN 9TIK 11RA

Twitter. 11:00-13:00.

Otsailak 9, astelehena.

Facebook. 11:00-13:00.

Otsailak 10 eta 11.

Izen-ematea:

Astelehenetik ostiralera.

09:00-13:00.

Idiazabal, 11. 943 023 682.

Herri antzerkia igande honetan Basteron



Udal musika eskolako helduen abesbatza Basteroko entsegetan.



Igandean herrikideek galdu ezinezko hitzordua dute Basteron: Herri antzerkia. "1615eko urtarrilaren 26a zen Andoain herri gisa ibilbide propioa egiten hasi zenean. Egun hartan, Andoain herri berriaren ahal-dun zen Martin Ibañez Ubayar lizentziatuaren bitartez, Felipe III.ak Gipuzkoan herri-ka izandako hogeita hamar hiribilduri, tartean Andoaingo unibertsitateari, Tolosako aginte-eskualdetik bereizten zuen eserlekua eta errege zedula eman zizkion". Horixe izan daiteke igandean Basteron taularatuko duten herri antzerkiaren sinopsia. Horixe abiapuntua, eta hortik aurrera artea: herriar talde handi batek eskainiko duen artea, jardueraz ezberdinen bitartez. Antzerkia izango da nagusiki, baina baita musika edota dantza ere. Katramila antzerki taldeak heldu zion mendeurreneko ospakizunen artean antzezlanaren egiteko ardurari. Hilabete luzez Miren Gojenola antzerki zuzendariarekin batera landutako lana igande honetan ikusteko aukera izango da.



Urki dantza taldeko kideak entseguan.

IKUSGARRIA IZANGO DA

Antzezlanaren garapena jarraitu dutenek horixe diote, ikusgarria izango dela. Aukera bakarra izango da, izan ere ez dirudi, beste saiorik egingo dutenik. Komenigarria da, beraz, ahalik eta azkarren sarrera eskuratzea. Sarreraren salmenta motel samar zihoan baina azken egunetan 300 sarrera saldu dira. Beraz, antzezlanaz gozatu nahi duenak hobe du garaiz ibiltzea.

Basteroko txarteldegian salgai daude, eta baita Kutxabank banketxearen webgunean ere.

Herri antzerkia

Katramila, Udal musika eskolako helduen abesbatza, Olagain, Urki, Bertso eskola, Maizorri txalapartariak, Mikel Moreno eta Kristina Solano musikariak eta Pilar Rodriguez antzezlea. Otsailak 1, igandea. 12:00, Bastero. Areto nagusia. 5 euro.

Goizeko hamaiketan udaletxean; segidan Basterora jaitsiko dira

Ekitaldi instituzionala hainbat alkaterekin

Aste berezia izaten ari da, astelehenean hain justu 400 urte bete zirelako Andoainek herri izaera lortu zuenetik. Udal ordezkariak eta zenbait herrikidek ospakizuna egin zuten udaletxean. Astea borobiltzeko, Andoaingo Udalak 1615ean herri izaera lortu zuten gainerako udalerrietako agintariak ekitaldi instituzionalera gonbidatu ditu. Ez dira agintari bakarrak izango, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkariak ere bertaratuko baitira.

Udal batzar aretoa txiki gertatuko da ekitaldi instituzionala ikusi nahi duen herritarra-



rentzat. Plaza inguruan hasiko da, ordea, ekitaldia. Izan ere, plazan bertan deituta daude gonbidatu guztiak. Bertan dantzariak ezpata-dantza eskainiko dute, eta ondoren Udal ordezkariak banan bana igoko dira batzar aretora dantzariak osatutako arkua zeharkatuz.

Andoaingo Udalak 1615ean herri izaera lortu zuten gainerako udalerrietako agintariak ekitaldi instituzionalera gonbidatu ditu

Alkateak hitzaldia eskainiko du, eta haren ondoren hitza hartuko dute Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Batzar Nagusietako ordezkari banak.

Udaletxean hasitako ekitaldiak Basteron izango du jarraipena. Txistulariek lagunduta, agintari guztiak herri antzerkia ikustera gerturatuko dira.

Jose Antonio Rodriguez Ranz historialariaren hitzaldia

Andoaingo historia, zenbaki eta izen bidez

Azken urte hauetan azterketa sakonik egin ez badu ere, Jose Antonio Rodriguez Ranz "Txiki" oso kontuan hartzeko historialaria da, ibilbide oparoa duena. Egun Deustuko unibertsitatean dekanodunak Andoaingo historia garaikidea ardatz hartuta hitzaldia eskaini zuen. Demografia eta populazioaren gora-behera, familia politikoaren garapena..., zenbakiek osatu zuten hitzaldiaren zati handiena. Izenek ere bai, bereziki, alde bateko eta besteko indarkeriak eraginda. Krisi ekonomikoa pairatzen dutenak gogoan izan zituen eta etorkizunerako ardatza koherentsia dela azpimarratu zuen.



Urtarrilaren 21ean hitzaldia eskaini zuen Basteron, ehun entzuleren aurrean.



TXOTX!

Kantu liburuxka 2015

Aiurriren eskutik

R. Zabala
943 690 774... Aduna

Sarasola
943 690 283... Asteasu

Larre-gain
943 555 846... Ereñozu-Hernani

Aburuza
943 692 452... Aduna

Gaztañaga
943 591 968... Andoain

Oianume
943 556 683... Urnieta

Altuna
943 554 917... Urnieta

ANDOAINARRAK 400

Andoain herriaren alde topa egin zuten

Arratsaldeko 17:00ak jo zutenean, Andoain herriak herri izaera lortu zueneko egun berean ospakizun ekitaldia antolatu zuen. Alkateak “Zorionak Andoain!” izenburu zuen bandoa irakurri zuen eta se-

gidan balkoitik suziria bota zuen. Udal batzar aretora sartu zen berriro, gainerako Udal ordezkariekin eta kultur nahiz gizarte mailako eragileekin brindisa egitera.



Alkateak eta Udal ordezkariak topa egin zuten ekitaldira hurbildu ziren eragileekin batera.



Txanpainarekin ospatu zuten herri izaera lortu izana, bandoa irakurri eta suziria bota ondoren.



Udaletxeko balkoira irten ziren Udal ordezkariak, suziria botatzera.



Udaletxean eta herriko hainbat toki adierazgarritan mendeurrenaren panelak jarriko dituzte.



Xumea izan zen asteleheneko ekitaldia: Andoainarrak bando bidez zoriondu, Udaletxearen kanpoaldea mendeurrenako panelekin atundu eta brindisa egin. Horixe mendeurrenako ospakizunak eman zuena, Andoainek herri izaera lortu zuen egun berean.



Udal ordezkari ia guztiak bertaratu ziren ospakizun ekitaldira. Ana Carrere alkateak bandoa irakurri zuen.

Efemerideari erantzunez, Andoaingo gizarte eta kultur eragile ezberdinak hurbildu ziren udaletxera. Bandoak ondo adierazten duen bezala, ospakizunean agerian geratu zen andoainarrak hamaika direla, hain justu, “jatorri ezberdinetatik eratorritako herritarren mosaikoa” osatuz. Alkateak herritarrak gogoan hartu eta “urte guztian zehar antolatutako ekintzetan parte hartzera” gonbidatzeko baliatu zuen ospakizuna.

Urtarrilean Artxibotik antolatutako bi hitzaldietara herrikide ugari hurbildu da. Igande honetan ere Basterora ehunka herrikide hurbilduko da herri antzerkiaren estreinaldia ikustera.

“PARTE HARTZE HARIAK LOTUZ 2015” EKIMENA

Parte hartze prozesu berria, sei bilerekin

Bi aste atzera Landa guneari eta Bazkardori eskainitako bilerekin, eta aurreko astean gainerako auzoei eskainitakoekin Andoaingo Udalak 2015ari dagokion parte hartze prozesua burutu du.

Bilerek hiru ildo nagusi izan dituzte: Tokian tokiko eskaeren azterketa, Andoain osoari dagozkion jardueren berri ematea eta, azkenik, Udal kontuen azalpena ematea.

Ana Carrere alkatea izan da sei bileretan Udalaren jarduera guztien bozeramailea. Hark ematen zituen azalpen guztiak eta hari zuzentzen zitzaizkion galdera guztiak. Bilera horietan guztietan gobernu taldeko ordezkariak lagunduta aritu zen. Tarteka, bilera batzuetan, PSE-EEko ordezkaria ere ikusleen artean izan ziren. EAJ-PNVkoek ez dute parte hartu, eta prozesuaren hasieran prentsa ohar bidez “elektoralismo”tzat hartu zuten alkatearen deialdia. Urtarrilaren 13tik 22ra egin diren sei bilera horietan errepaso orokorra eman zitzaion herriari. Horra, jarraian hainbat gai orokor:

KALEKO ARGITERIA

Herri osoko argiteriaren diagnosia egin da, eta etorkizuneari, argi-eraginkortasuna lortzeko ekintza plana burutuko da, milioi bateko inbertsioarekin.

TXAKUR KAKEN BILKETA

Txakur jabeekin eta herritarrekin bilerak egin dira, elkarbizitza egokirako konpromisoak lortzeko, espazioak arautzeko, ordutegiak... Oposizioko alderdiek ez dute Udal gobernuak proposatutako arautegi berria onartu.

KALEEN GARBIKETA

Kontrol zorrotzagoa emango da.

BABES AKUSTIKOA N-1EAN

Aldundiaren ardura denez, 2015ean ere panelak jartzeko eskaera egin zaio. Aldundia aurrekontuak bideratzeko zain geratu da.

MERKATARITZA

Merkataritza Mahaia sortu eta “Andoain bizi!” ekimena martxan jarri da.

KIROL APARATUAK PARKEETAN

Inguruko herriei begira, gutxi erabiltzen dira eta horien mantenu kostua handia da.



Ana Carrere alkatea Sorabilla-Errotagain elkartearen auzoko hainbat herritarrekin bildu zen.

Auzoz auzoko hainbat kezka

Parte hartze prozesuko bileretan tokian tokiko jardueren berri eman dute, auzo bakoitzari dagokion azalpen zehatzak orrialde batean banatuz. Auzoz auzo, hauek nabarmenenak:

KARRIKA-ETXEBERRIETA

Bus zerbitzua ospitalera: “Foru Aldundiaren eskumena da. 2013an Foru Aldundiak antolaturiko parte hartze prozesuan zerbitzu hori egokitze-ko eskaera egin zitzaion. Bitartean, hiribus zerbitzuaren ordutegiak moldatu egin dira ospitalera doan autobus linearekin lotzeko”.

Algodonerako garaieak: “Prozedura hasita dago. Udalaren iritziz obra-aren ardura %50ean Udalarena da, eta beste %50a Jaurilaritzarena. Jaurilaritza, ordea, ez dago ados. Bitartean, azpiko garaieetara ur isurketak ekiditeko obra txiki bat egin da”.

CAREko aparkalekua hobetu eta zebra-bidea margotu: “Ez da burutu”.

ERDIGUNEA-ZUMEA-OLAGAIN

Udal baratzeak sortu: “Helburu hau oraindik bete ez izanaren arrazoiak, batez ere, Andoainen lurzoru publiko falta da. Larremendi kalean (Gaztetxearen ondoan) dagoen lur saila topatu dugu helburu honetarako. Orain, finantziazioa behar dugu”.

Bekoplaza atondu eta labaderoa garbitu: “Plazako lurzorua egonkortu eta garbiketa lanak egin dira harraskan”.

Zebra-bideen, seinaleztapena eta semaforoaren inguruko azterketa egin: “2014an espaloien egokitzapenaren lehenengo fasea burutu, 2015ean bigarren faseari ekingo diogu”.

SORABILLA-BORDABERRI

Balioanitzeko pista: “Bere garaian auzo elkarteak proposamena egin zuen. Orduan ere, zuen kostuagatik, ez zen lehentasunezko obra izendatu. Ez da egin”.

Herrigunerako pasabideak hobetzea: “Sorabilla eta herrigunea lotzen dituen bidegorria eta zebra-bideak 2013an egin zituen Foru Aldundiak, bere eskumenekoa baita.

Auzoa eta herri gunea lotuko lukeen zubia eraikitzea soluzio onena dela onartzen dugun arren, duen kostua oso altua da (500.000 mila inguru). Txistokiko zubi azpiko zebra-bidea eta argia ipintzea, berriz, Udalak egin du”.

BAZKARDO-KALETXIKI-KALONJE-GELTOKI

Ziako errekan ubide berria eraiki uholdeen arazoa konpontzeko: “Eskumena Ur Agentziarena da. Aurrez ere irtenbidea emateko eskaerak egin

izan zaizkie, baita hainbat bilera egin ere. Arrazoi nagusia eragozpen ekonomikoa da. Hori guztia jakinik, 2014an Ziakoko uholdeen aurkako aurreproiektua egin du Udalak. Kostuaren aurreikuspena 3 milioi eta erdikoa da. Aurreproiektu hau Ur Agentziari zein herri-tarrei aurkeztu zaie”.

Kaletxikiko aldapari irtenbidea bilatu: “Igogailu edo aldapa mekanikoa ezartzeko aukera baztertuta dago, zailtasun tekniko eta ekonomikoengatik. Aldapan irristaketak saihesteko tratamendua eman da bi espaloietan”.

Etxebizitza zaharrak: “Dagoeneko egin da etxearen hondamen txostena. Jabeek agindua bidali zaie etxea botatzeko. Hauek bota ezean, Udalak egin beharko du”.

Trenbide azpiko zubia: “Autoen ibilbidea norabide bakarrean egokitu da. Oinezkoentzako igarobidea baliatu da, eta argiteria sistema aldatu”.

LANDA GUNEA

Herri bideak, mendi bideak: “Hainbat herri bidetan inbertsioak behar dira, gutxienez 90.000 euro (Garate, Kaxkabeltza, Goiko-Etxeberri, Mendiluze....)”.

Elur eta izotz garaia: “Elurte Plana urtez urte berrikusten da”.

APARKALEKUAK

Ez dauka irtenbide errazik. 8.460 ibilgailu daude herrian eta 3.500 aparkaleku pribatu. Ezkerraneako gunea aparleku izango da, hurrengo hirigintza plana iritsi bitarte.

EUSKARAREN SUSTAPENA

Aurrera eramandako egitasmoak: Euskararen aholku batzordea martxan jarri, euskararen astea, gurasoentzako oinarritzko euskara programa, bertsozale taldearen Sorozaletik Mendiluzera ekimenaren sorrera, gazte etorkinekin euskara eta integrazioaren lanketa.

UDAL LIBURUTEGIA

Egoera ekonomiko estuak liburutegi berri bat eraikitzea zailtzen du.

OSAKIDETZA

Telefono bidezko zerbitzuarekin kexak izan dira eta kexa horiek bideratzeko Andoaingo Osasun zentroko zuzendariarekin eta Tolosako gerentziarekin bilerak egin ziren. Osakidetza okerrak zuzendu ditu.

KONPOSTAIA

Konpostaia zabaltzea lau modutara bideratu da: Udal eraikinak, ikastetxeak, etxeko konposta eta auzo konposta. Udal eraikin eta ikastetxeetan konpostak ezarri dira. Mankomunitatearekin batera, etxeko konposta kanpainak abiatu dira eta, era berean, auzo konpostako probak martxan daude Etxeberrietan, Kale Nagusia eta Ondarretan. 2015ean aukera beste eremuetara zabaltzea nahi dute.

ERREKAK

Erreken dragatze lanak egin ahal izateko eskumena Ur Agentziarena da. Urtero haiekin egindako bileretan eskaera egin dute. Bi eragozpen daude, ingurumenari dagokion eta kostu ekonomiko altua.

Dokumentazio osoa:

partehartu.wordpress.com

“PARTE HARTZE HARIAK LOTUZ 2015”

Udalak sustatutakoak

Herritarrek egindako proposamenez gain, Udal ordezkariak sustatutako beste zenbait ekimenen berri ere eman zuten. Sailez sail, horra hainbat:

GIZARTE MAILAKOAK

Kaleratzeak Stop elkartearekin hitzarmena, Zahar etxean itxita zeuden apartamentuen irekiera, argindarra ordaindu ahal izateko diru laguntza lerroa, elkarteak diruz-laguntzeko araudiaren sorrera.

BERDINTASUNA

II. Berdintasun Plana osatu, jabetza eskolak egin, batukada feministaren antolaketa, Berdintasun Kontseilua eratzea,...

KIROLA

Kirol Astearen antolaketa, eredu ireki eta herrikoia bultzatuz. Kiroltasunaren hitzarmena bultzatu kirol elkarte eta eskolekin batera.

TURISMOA

Eskualdeko turismoko plan estrategikoa Behemendiren eskutik, Leitزارan bide berdearen agenda sortzea Nafarroako herriekin batera.

KULTURA, HEZKUNTZA

Opera eskaintza Basteron, Ekolapiko proiektua bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko haurtzaindegian.

GAZTEAK

Diagnostikoa egin eta plana osatu.

ZERBITZUAK

Zumeako zebra-bidea, Kale-

txikiko trenbide azpiko pasabidea, Txurreriako zebra-bidea, Sorabillako pasabidea edota Txistokiko zubi azpiko zebra-bidea ezartzea, ur hoditeria berritzea, hiribus zerbitzua hobetzea, Malo erre-karen bideratzea, hainbat zerbitzuren kontratuen berrikuspena (ehorzketa, kale garbiketa, lorazaintza, udal eraikuntzen garbiketa, eszenategien muntaia...), Ondarreta, Zumea eta Leizaurko haur parkeen berrikuntza, etab.

INGURUMENA

Hondakin mahaiaren sorrera, auzokokonposta, etab.

ENPLEGUA

Eskualdeko Enplegu Plana 2012 osaketa, merkataritza sustatzeko ekimenak sustatzea.

HIRIGINTZA

Mugikortasunaren planaren lehen fasea, "Andoingo kaleak denontzat berdin" hirigintza plana genero ikuspegitik garatzea, lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantza, Exkerranea eta Etxeberrietako plan bereziak abian jartzea, Ama Kandida kaleko GI-3722 errepidearen zatia Udalaren gain hartzea, Ziakoko uholdeen aurkako aurreproiektua, etab.

Orokorragoak diren beste zenbait gai ere azaldu ziren bilera horietan. Hala nola, udalletxeko soldata eta liberazio kopurua jaistea, Ataria herritarren arreata zerbitzuaren irekiera, Andoaindarrak 400 ekimena martxan jartzea...

Egoera ekonomikoa

Sei bileren erronda horretan Andoingo alkateak Udalaren diru kontuen azalpenak eskaini ditu. Jakina da egoera estua dela. 2014ko diru kontuei dagokionez, kontuak nahiko parekatuta daude:

Sarrerak	22.076.325 €
Gastuak	21.356.614 €

Aldi berean, bilera horietan Udalaren egoera finantzieroa ulertzeko lagungarri diren hainbat adierazle eskaini zituzten:

Aurrezki garbia:	942.648 €
Zor bizia:	3.300.399 €
Altxortegia:	-125.000 €

Aurrezki garbia delakoa egoera ekonomikoa ulertzeko adierazle garrantzitsutzat jo zuten, Udalaren finantzaketarako eta inbertsioak egiteko duen gaitasuna adierazten dutelako.

Datu horrekin, urtez urteko alderaketa eta bilakaera egin zuten:

2007	1.115.696 €
2008	-28.562 €
2009	-742.850 €
2010	160.797 €
2011	-458.412 €
2012	99.472 €
2013	1.451.300 €
2014	942.648 €

Hiru ekitaldi ezberdin iragarri dituzte Inauteriak bitarte

Musika eta inauteri giroa Gazte Lokalean

Inauteri giroa geroz eta nabarmenagoa izanik, Gazte Lokalean hiru hitzordu nagusi antolatu dituzte datozen egunetarako: musika emanaldia, beldurraren etxea eta lehiaketa. Horra, ekitaldi bakoitzeko informazio zehatza:

Kontzertua

Otsailak 6, ostirala
18:30. Gazte Lokala

Udal musika eskolako 12-14 urteko gazteek “Mugaz” izeneko taldea osatu dute. Gazte guztiak aho bete hortz uzteko moduko kontzertua eskainiko dute.

Ondoren, afari merienda egiteko aukera izango da.

Beldurraren etxea

Otsailak 12, osteguna
17:30. Gazte Lokala

Ostegun Gizenean Gazte Lokala eta Gizarte Zerbitzueta-ko egoitza beldurraren etxe bilakatuko da. Jarduera hori Gazte Lokaleko dinamizatzaileen, kale hezitzaileen eta gazte koadrila desberdinen elkar-



Mugaz taldea, Udal musika eskolako gazteek osatutako taldea.

lanari esker burutuko da. Hamar urtetik gorako haur eta gazteentzat gomendagarria da. Antolatzaileen esanetan, “beldurra pasatzeko aukera paregabea!”.

Lehiaketa

Otsailak 13, ostirala
17:30. Gazte Lokala

“Irabazteko bakarra” gaitasun lehiaketa eta merienda berezia koadrila guztientzat. Parte hartzeko baldintza bakarra ipini dute: mozorrotuta agertu behar da.




Otsailaren 13an Gazte Lokalera mozorrotuta agertzeko dela egin dute.

Egun osoko bisitaldia egin zuen, aurreko ostegunean

Markel Olano Aldundirako hautagaia Andoainen

Markel Olano Gipuzkoako Foru Aldundirako EAJ-PNVren hautagaia Andoainen izan zen urtarrilaren 22an, herriko eragile eta enprekin batzartu eta herritarren beharrak eza-gutzeko. Lehen orduan tokiko kazetariekin gosaldia eta gero, teknologian espezializatutako lantegi batzuk eta La Salle Berrozpe lanbide-heziketa zentroa bisitatu zituen. Bisitaldi horien ostean, ekonomia suspertzeko langileen prestakuntzak izango duen garrantzia nabarmendu zuen. Andoainen eta Gipuzkoan industriaren iraultza gertatzen ari dela adierazteaz gain, aldaketa horretan langile prestatuenez izugarritzko garrantzia izango dutela uste du: “Enpresen eraldaketa gertatzeko langile prestatuak behar dira, hau da, espezializazio handia



Jeltzaleak La Salle Berrozpe ikastetxean izan ziren.

daukatenak, lidergoa izango dutenak eta ingurune zibernetikoa menperatuko dutenak”.

Puntako teknologian espezializatutako Mendiola eta Mendi lantegiak bisitatu ondoren, Andoingo merkataria- biltzen dituen Salkin elkartearekin batzartu ziren EAJko

hautagaiak, bai eta Gaztañaga sagardo ekoizleekin ere. Arratsaldean, Ubitarte kirol instalazioak eta Karmentxonea jauregia bisitatu zituzten.

Bisitaldi guztietan Olanorekin batera egon zen **Mari Jose Izagirre** Andoingo alkatezarako hautagaia.

UDALAREN ETA GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEN ARTEKO HITZARMENAK

Diru-laguntzak mundu mailako elkartasunari

Garapen bidean ari diren herrialdeekiko lankidetza egitasmoari esker, hamalau Gobernu Kanpoko Erakunde izango dira Andoaingo Udalaren diru-laguntzak jaso dituztenak, 2015ari dagozkionak.

Aurreko ostiralean Udal batzar aretoan egindako ekitaldian, elkar-teen hitzarmenak sinatu zituzten. Udalak guztira 86.900 euro banatuko dituztela iragarri zuen.

Ana Carrere alkateak hartu zuen hitza guztiak aurkezteko. Ikuspuntu ekonomikotik gehiago daukatenez gutxiago daukatenekin duten konpromiso etikoa aipatu zuen, lehenbiziko eta behin. Aitortu zuen Andoaingo Udalaren desioa eman dena baino diru gehiago ematea izan dela oraingoan ere, baina bizi duen egoera ekonomikoak ez diola utzi. "Behintzat, aurreko urteetako diru kopurua mantentzen saiatu gara", gaineratu zuen.

Aldi berean, eskerrak eman zizkien GKEko ordezkari guztiak mundu justuago baten alde egiten ari diren ahaleginagatik. Diruz lagunduko diren hamalau proiektuetatik gehienek daukaten ezaugarri bat azpimarratu nahi izan zuen. Alegia, horietako askok haurren garapena jomuga izateaz gain, emakumeen burujabetza ere kontuan hartu dutela. "Gizarte aurreratuagotzat jotzen diren emakumeek nahiko arazotak dauzkate burujabetza lortzen, eta beraz, pentsatzekoa da are zailagoa daukatela beste herrialde horietako emakumeek, ez baitaukate eskubiderik eta gutxiago botererik. Alde horretatik, pozgarria da zuen interesa emakumeei bultzada emateko".

GKEen ordezkariak euren egitasmoen berri eman zuten banan bana. Honako elkarte eta egitasmoek jasoko dituzte diru-laguntzak:

- **Mundu Solidarioa Helburu:** Dirianbako (Nikaragua) ezindu gazteen integrazioaren bila. 7.000 euro.
- **3. Adina 3. Mundurako:** Guatemalako gazte indigenen garapenerako kultura. 5.500 euro.
- **Bakerako Kooperazio Batzarra:** Senegalen emakumeen artean partaidetza eskubidea bultzatzea eta, lidergo, eragin politiko eta parte hartzerako gaitasuna sendotuz. 5.500 euro.



Gobernu kanpoko erakundeetako ordezkariak Andoaingo Udal batzar aretoan.



MAÑEL SERRA

Honek:

"Gure elkarteak 27 urte daromatza Nikaraguan, Somotoko lurraldean lanean. Los Quinchos izeneko egoitzaren bitartez, etxean arazoak dauzkaten eta bazterkerirako arriskuan dauden gazteei laguntza ematen zaie, horiek integrazio bidean jartzea da helburua. Egun, 80 bat gazte biltzen dira egoitza horretan. Azken bi urteetan nahiko larri ibili gara ekonomikoki, egoitza hori zutik mantentzeko, eta egia esan, ezinbesteko egin zaigu Astigarraga eta Andoaingo Udaletatik jasotako laguntza".

INAXIO ARREGI

Baltistan Fundazioa:

"Pakistango ipar ekialdean,



nekazaritzako proiektuekin hasi ginen baina oso jorratzeko alor zaila zela ikusita, egun, hezkuntzara bideratzen ditugu geure ahaleginak. Haurrak hezkuntzan txertatu nahi dira, eta emakumeak batez ere. Hain zuzen, Hushe ibarrean, 3.000 metrora bizi diren haurrengana zuzendu dugu aurtengo kanpaina, eskolara daitezen. Neskek doahin daukate, eta mutilei tasa txiki bat jarri zaie. Nahita egin da diskriminazio hori, izan ere bestelakoan, neskak etxean geratzen dira, geratzera derrigor-tzen dituzte.

Aldi berean, Vocational Centre deitzen den egitasmoa ere herriz herri jarri da martxan, emakumeak elkarrekin



bil daitezen, euren kezkak parteka ditzaten...".

IDOIA AZPILIKUETA

Proyde-Proega Fundazioa:

"La Salleko anaiek sortutako fundazioa da gurea, hezkuntza munduarekin lotutako egitasmoak aurrera eramateko asmoz. Andoaingo Udalarekin 2008an hasi ginen garapenerako eskolen-sarea bultzatzen. Aurtengo diru-laguntzarekin, berriaz, Madagaskarren ikastetxe bat eta eremu menditsuetan kokatzen diren bi herrien arteko errepidea (3,5 kilometro) eraiki nahi ditugu. Era berean, gurasoei lanketa berezia egin nahi dugu, alabak ere eskoletara bidal ditzaten".

- **Baltistan Fundazioa:** Winter Campen (Pakistan) ikasketa sekundarioetarako bekak. 5.500 euro.
- **Behar Bidasoa:** Kabugan (Rwanda) Garapen Poloan nekazal jarduerak sustatzea, eta maracuyaren lanketaren eta behi-haziendaren hazkuntza sartzeara.
- **Denok Osasunaren alde:** Beniko (Bolivia) departamenduan osasun sistema indartzea, sorospen eta formakuntzaren arloan. 5.500 euro.
- **Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza Batzordea:** Canton El Chaguite Komunitatean (El Salvador) ura eta onbidartzea genero ikuspegitik. 8.000 euro.
- **Ingeniaria para la cooperacion:** Etiopiako zortzi komunitateetan giza garapena, edateko ona den ura lortzeko. 6.900 euro.
- **Medicus Mundi Gipuzkoa:** Sikimeko hegoaldeko nekazal eremuko komunitateetako erakunde eta federazioetako emakumeen burujabetza. 5.500 euro.
- **Honek:** Los Quinchos egoitzan (Nikaragua) arrisku egoeran dauden gazteen sorospen integrala. 5.500 euro.
- **Taupadak:** Chimane (Bolivia) emakume indigenen burujabetza, euren familien elikadura ziurtatzeko. 5.500 euro.
- **Proyde-Proega Fundazioa:** Madagaskarren garapenerako eskola programa bultzatzea, landa-inguruetako eskola-sareko haurren kalitatezko oinarritzeko hezkuntza bermatzeko. 7.000 euro.
- **Serso San Viator de Euskal Herria:** Banforan (Burkina Faso) eskoletatik kanpo dauden gazteak lan merkatuan txertatzeko laguntzea, hiru urtetako formazio zikloen eskutik. 7.000 euro.
- **Txingudi Vida:** Burkina Faso-ko Den Kanuko lurretan eskola baten lehen fasea eraikitzea. 5.500 euro.

Otsailaren 4an Andoainen, Manuel Larramendiren eskutik

Santa Agedako erronda, hurrengo asteazkenean

Postontzia

“Aurten ere, urteroko legez, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak otsailaren 4an Santa Ageda bezperako erronda antolatuko du, herriko beste elkarte, ikastetxe eta talderen partaidetzarekin. Urtero-urtero ehun lagun inguruk ematen dio errondari hasiera Larramendi Bazkunaren Dr. Huizi kaleko egoitzaren parean, behin bertako mastan Santa Ageda eguna Euskal Herriko eguna dela gogorarazten duen ikurriña lau haizeetara ipini ondoren. Arratsaldeko seieta-tik aurrera herriko kaleetan barrena ibili ohi dira Santa Ageda bezperako koplak kantari, baita neguko Otso beltza-renak ere. Zortzi eta erdietan inguru eman ohi diote amaiera errondari.

Baina Santa Ageda bezpera iritsi aurreko egunetan parte hartuko duten askok koplak eta kantak prestatzen dituzte Ramon Beraza musikariaren zuzendaritzapean. Aurten, ahotsak, kantak eta soinuak prestatzeko lehen saioa egin



Otsailaren 4an arratsaldeko 18:00etan irtengo dira Dr. Huitzi kaletik.

da. Hurrengo ostegun honetan izango da, urtarrilak 29, iluntzeko zortzietan (20:00) Pio Baroja kalean dagoen Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen atarian.

Larramendi Bazkunetik adierazi digute edozein herritarrek parte har dezakela errondan, tradizioak agintzen duen bezala janztea eta kantatzea dela jartzen diren bi baldintza bakarrak, eta ahal dela –hori bai– entseguetara joatea. Garrantzi handikotzat dute ere andoaindarrek etxeetako leihoetatik diru-mozkina maindire-

Azken entsegua ostegun honetan izango da, urtarrilak 29, Ambrosia Olabide iluntzeko 20:00etan hasita

ra botaz egiten duten ekarpena. Erronda amaitu ondoren afaria egingo dute Berrozpeko Ontza elkartearen izena aurretik ematen dutenek. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 29a izango da, iluntzean egingo den entseguan. Egunean bertan ezin da izenik eman afaritara joateko”.

Bertso afaria Hernaniko Santa Barbara elkartearen, 21:00etan

Mendiluze eta Lujanbio, bertsoetan Korrikaren alde

Datorren otsailaren 6an, Korrika 19ren atarian, AEK-k bertso afaria antolatu du. Bertan kantari arituko dira Aitor

Mendiluze eta Maialen Lujanbio. Gaueko 21:00etan hasiko da eta menua oparao da. Txartelak dagoeneko salgai daude

25 euroko prezioan, Rioja zein Oindi tabernetan. Eskualdeko AEK-k bertaratzeko gonbitea luzatu du.

Afari herrikoia hogeiturokoa izango da, izen-ematea zabalik dago

Kalderero gaua, gertu

Otsailaren 7an, larunbaterekin, Kaldereroen etorrera antzeztuko da Andoaingo kaleetan barrena. Irteera, ohi bezala, Ontza elkartetik egingo dute arratsaldeko 17:00etan hasita. Kalejira egin eta gero, Berrozpen afari herrikoia egingo dute. Prezioa 20 eurokoa izango da eta dagoeneko izena eman daiteke 649 043 812 telefono zenbakira deituta.



Eskudero eta Beloki, iaz, Kaldereroetako errege-erreginareen paperean.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

NI ERE CHARLIE HEBDO NAIZ BAINA ÑABARDURAK KONTU...!

Horrelako sarraskia edo atentatua gertatu ohi denean berehala eta, gehiegi pentsatu gabe, iritziak, gaitzespenak jartitzen dira, modu konpultsi-boan. Gisa honetako erreakzioak, bestalde, batik bat pertsonen bizitza tartean dagoenean, guztiz normalak dira. Hamabi pertsonen hilketa ez da, noski, txantxetako gauza. Amorrurori iragan ondoren, orde, hausnarketa sakona egitea beharrezkoa da, orokorrean ez baitira gauzak beltzak ala zuriak izaten. Hori sinplifikazio erraza litzateke. Hau da nire asmoa, hots, Aiuurriko zutabearen nire hausnarketatxo agertzea.

HILKETAK EZ DU JUSTIFIKAZIORIK

Lehenik, argi eta garbi gera bedi ideia, aberria edo sinismen bat defendatzeko ez dela zilegi bizitza kentzea. Ideiak, sinismenak ideiekin defendatu behar dira eta ez tiroz. Hausnarketa guztien gainetik eta lehenik hau garbi utzi beharra dago. Maila horretan atentatua, nire irudiko, gaitzetsi beharra dago, nahiz Frantzia ala Sirian edo Palestinan. Ezin ditzakegu atentatuak eta heriotzak sailkatu; hipokresia hutsa litzateke –eta hori ere gertatzen ari baita gure gizartean eta mundua osoan–.

ADIERAZPEN ASKATASUNAK MUGARIK EZ?

Badira zenbait hitz mendealdean kristautasunak, agin hobe katolikotasunak monopolizatu dituenak. Hala nola: izpiritua, sakratua etab. Guztiok izan gara hitz horien kontestuan heziak eta heziketa hori baldintzatua egon da. Kulpabilitatea sorrarazi digute, besteak beste, gorputza zerbait txarra dela erakutsi baitigute. Hori, agian Ekialdean beste era batera ikusi dute batik bat zenbait herrialdetan, Indian esaterako. Handik iritsi zaigu pertsona gogamena, gorputza eta izpiritua dela. Horregatik, hasieran aipatutako kontzeptu horiek ez dira arkaismo bat gizakion barne zutabe baizik. Batzuk Jainkoagan jarriko dute hori dena eta hortik abiatuko dira garapen hori lortu nahian. Besteek, Jainkorik ez duten zenbait tradizioetan hala nola Budismoan eta, nola

Frantziako atentatua

ez, musulmanak Mahoman, Jainko Absolutu bezala hartu eta bide horri ekingo diote.

Frantziako atentatua Mahomaren irudi barregarri eta iraingarri batzuk medio egin eta burutu zen. Lehen esan dut pertsonen bizitza sakratua dela eta badaudela beste zenbait medio horrelako erantzuteko. Baina, kontxo, ez al dugu kontuan hartu behar pertsonen sinismen horrek errespetu bat merezi duela? Edo beste modu batera esanda adierazpen askatasunak ez al du mugarik? Zerbait absolutu al da? Nire irudiko, ez dago absoluturik ez erlijioan eta ez adierazpen askatasunean. Eta adierazpen askatasunak badi-tu bere mugak, baditu hasiera eta bukaera. Bukaerak, hain zuzen, bestearen askatasunaren hasieran dauka muga. Eta adierazpen askatasunaren alde nago, baina ez dut ikusten elkarbizitzarako ona denik gizakiaren sakon-sakoneko sinismenak astintzen ibiltzea.

LAIZISMOA

Nik beti defendatu izan dut laizismoa, eta defendatzen jarraituko dut. Frantzia estatu laikoa da. Hemen oraindik tirritarra gabiltza. Hortaz asko idatzi dut herrietako festak direla eta, baina gaurko honetan zera esan nahi dut: Laizismoa ere integrista bihur daitekeela eta ez nago, noski, laizismo integristaren alde. Laizismo integristak benetako laizismoa hil dezake. Laizismoa, bai baina errespetu batean.

NEURRI ANTITERRORISTAK

Frantziako manifestazio erraldoi hartan han ziren gure gobernariak zeinak adierazpen askatasuna hainbat aldiz hankapetik pasa duten. Han zen Netanyahu Israelgo agintaria. Begira zer egin duen eta zer egiten ari den Palestinako herriarekin. Eta hemen gero eta lege zanpatzaileagoak ezartzen ari da gobernuak. Gaur bai eta bihar ere bai, edozein adierazpen tribunaletara daramate. Hipokresia hutsa.

Nire irudiko, adierazpen askatasuna bai, elkarrekiko errespetua eta justizia ere bai. Espainiako gobernuak onartzen dituen legeei norbaitek deitu die legedi integrista. Beraz, neurri polizialak eta zanpatzaileak baino hobe hezkuntza ona, adierazpen askatasuna benetakoa eta elkarbizikidetzak.



KIROL ALBISTEAK

Ganbara saski taldearen denboraldia, borobila

ASTEBURUKO EMAITZAK:

ZATS	55	Asteburuko partidak
Ganbara Seniorrak	59	Ganbara Seniorrak-Tolosa
Lehen postuaren bila doaz.		Larunbata, 31. 19:15.
		Allurralde.

BKL	50	Ganbara Infantilak-Easo
Ganbara Kadeteak	54	Larunbata, 31. 09:00.
Igoera jokatuko dute.		Allurralde.

Odriozola txapeldun-orde Gipuzkoako txapelketan

Urnieta 13
Oiartzun 30

Trinketea, Gipuzkoako finala.

Imanol Odriozola oso urduri aritu zen final osoan zehar, eta ezin izan zuen iazko garaipena errepikatu. Kadete mailan ohikoa izaten dira horrelakoak, asko ikasteko dutelako oraindik.



Ezkerrean, Imanol Odriozola.

Urnieta 22
Galdakao 7

Trinketea, Euskal Herriko liga.

Imanol Odriozola eta Jon Alberdi bikain ari dira Euskal Herrikoan. Horrela jarraituz gero finalaurrekoetara sailkatzeko aukera handiak izango dituzte. Ondorioz, aurkari onenen aurka arituko dira.

Allerru 2
Urnieta 18

Trinketea, Gipuzkoako liga.

Infantil mailako Ander Ezenarro eta Alain Urria garaitezin agitu dira orain arte.

Urnieta 22
Deba 13

Udaberri Txapelketa, kadeteak.

Iker Elgarresta eta Aitor Aldunberri urnietarren garaipen garbia.

Jokin Alberdi, larunbatean munduko txapelketan

Andoaingo txirrindulari eskolakoak eta eskualdeko txirrinduzaleak adi-adi egongo dira larunbat honetan. Izan ere Jokin Alberdi junior mailako lasterkariak goize-

ko 11:00etan parte hartuko du munduko txapelketan. Txekiako Taborren izango da.

Zortetik onena Andoaingo eskolako lasterkariari.

Jon Gaztañaga, minutu bila Ponferradina taldera

Andoaingo jokalaria bigarren mailako Ponferradina taldean utzita jokatu du, ekainaren 30era bitarte. Jagoba Arrasate lehen taldetik bota zutenean Gaztañagari lehen taldean jokatzeko atea itxi zitzaizkion. David Moyesek ez du bere gain konfiantza handirik erakutsi eta minutu bila Leon aldera joan da. Astelehen arratsaldean egin zuten aurkezpen ekitaldia. Hauexek bere hitzak: “zaletuak eta kide berriak agurtu nahi ditut. Jakin ezazuela lan egitera eta dena ematera natorrela”. Astearte goizean kide berriekin lehen prestaketa saioan parte hartu zuen. Taldea asteburu honetan Sporting taldearen aurkako partida prestatzen ari da. Garrantzia handikoa izango da, Sporting laugarren sailkatuta dagoelako. Ponferradina, berriaz, seigarren.

Gaztañagak taldekideen artean ditu Kepa Arrizabalaga Athleticceko atezain ohia eta Pablo Infante bigarren mailako jokalaria ezagunetarikoa.



Astelehenean egin zuen talde berriarekin aurkezpen ekitaldia.



Astearte goizean prestaketa saioan parte hartu zuen.

Urnieta kirol elkarteak bazkide kanpaina abiatu du

Asteburu honetan eta hurrengoan UKE elkarteak bazkide egiteko asmoa duenak aukera bikaina izango du. Kirol elkarteak laguntzeaz gain, klubeko arduradunek bazkideak abantailak izango dituela aurreratu dute: “Urtean zehar ospatuko diren zozketa ezberdinetan parte hartzea bermatuko dizugu eta, gainera, erosketak egiteko garaian, beherapenak lortuko dituzu hainbat merkatalgunetan”.

Urteko ordainsaria 30 eurokoa da, Urnietako kirol taldearentzat garrantzia handikoa dena: “Gure herriko adin ezberdinetako hainbat neska-mutilek kirola egin dezaten posible egingen duen elkarteak, aurtengoan ere herritarren babes eta laguntzaren beharra du”.



Bazkideek abantaila ezberdinez gozatzeko aukera izango dute.

UKE ELKARTEAREN HITZORDUAK
Urnietako kirol elkarteak bazkide berriak egiteko hitzorduak zehaztu ditu. Bazkide egin nahi duenak Udali kiroldegiko tabernaren ondoko bilera gelan aurkituko ditu UKEko kideak:

Urtarrilak 31, larunbata:
10:00-12:00 / 16:00-18:00.
Otsailak 1, igandea:
10:00-12:00.
Otsailak 7, larunbata:
10:00-12:00 / 16:00-18:00.
Otsailak 8, igandea:
10:00-12:00.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



KIROL ALBISTEAK

Lehenengo On Bosko lasterketa, igande honetan

Urnietako Salesiar ikastetxearen 50. urteurreneko ospakizunen artean, herrian zehar krosa antolatuko dute lehen aldiz. Ikastetxeak berak antolatutakoa da, Urnieta herriko erdigune eta hainbat auzotatik igaroko dena. Guztira 7 kilometroko ibilbidea izango du. Irteera eta helmuga ikastetxean kokatu dute. 14 urtetik gorakoek parte har dezakete.

OTSAILAK 1, IGANDEA.

11:00. Ikastetxea.

Izen ematea:

- 8 euro, aldeaz aurretik.
- 10 euro, egun berean.

Sariak:

- Garaikurra kategoria bakoitzeko lehendabiziko hiru sailkatuei.
- Sari berezia eskolako lehenengo ikasleari.
- Zozketa ezberdinak burutuko dira.
- Proba amaitzen duten lasterkari guztiek opari bana jasoko dute.

Informazioa:

- Ander, Iñaki (943 551 789).



Proba ikastetxearen 50. urteurrenaren harira antolatu dute.



Salesiar ikastetxean hasi eta amaituko da lasterketa, igande honetan.

Estreinaldia, ezin hobe



[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]


Elurra gero eta lodiago, eta taldeko indartsuenak arrastoa irekitzen, metro erdiko geruzan. Lau ordu pasa egin zituen taldeak elurretan, eta horrek ia zortzi orduraino luzatu zuen zeharkaldia.

Dutxa bero baten ostean Harakindegia jatetxean bapo baz-

kaldu zuen taldeak. Ibilbidea egin zutenek eta autobusean edo autoetan iritsitako beste dozena lagunek, 57 denara. Ihoteak ziren Leitzan, eta koardilaren batek itzulerako autobusa hartzeko komeriak izan zituen, moztzorro artean gustura zegoelako. Zantpatuz mendi taldeak eskerrak eman nahi dizkie ibilaldia antolatzen la-

gundu zuten guztiei, eta nola ez, parte hartu zuten guztiei. Mendi elkarteak aktibitate gehiago antolatzeko lanean murgildu da, dagoeneko. Gauzak normal, martxoan izango da, eta elurrarekin harreman zuzena duen irteera izanen da. Elkartek horren guztiaren berri zehatz emango du gauzak lotzen doan heinean.

Asier Arregi garaile Abadiñoko ziklo kros proban



Denboraldiari amaiera emateko azken proban, Asier Arregik garaipen polita lortu zuen Bizkaian. Zorionak! Hori da denboraldiari zapo-
re onarekin agur esatea. Lehia estua izan zuen, Jose Antonio Diez Arriolarekin. Arregi, nekatuta zegoela aitortu arren, garaile izan zen.

Infantil mailako neskak Gipuzkoako txapelketara



Urnieta Adarra Aroztegia 27
Anoeta 8

Lehenengo fasea modu bikai-
nean amaitu dute, aurreko
garaipenarekin Gipuzkoako
txapelketara sailkatu baitira.

UKEko txikiek ligan bigarren
amaitu dute eta orain Gipuz-
koako talde onenekin jokatu-
ko dute.

Urnieta-Intxaurdi
Larunbata, 31. 09:30.

Pala txapelketa Andoainen

Aurreko asteburuan Irunberri
elkarteen alde hasiera eman
zioten bikotekako pala txapel-
ketari, ikastolako frontoi esta-
lian. Ostegunean partida gehia-

go jokatzeokoak dira eta larun-
bat honetan berriro jardunal-
di berria jokatuko da. Hama-
bi partida izango dira denara,
15:00etan hasita.

Euskalduna eta Urnieta bigarren eta hirugarren doaz

Preferente. 17. jardunaldia:
Dunboa 0-0 Euskalduna
Hernani 1-3 Urnieta

Urnieta-Hondarribia
Larunbata, 31. 16:00.

Asteburuko partidak:
Euskalduna-Sanpedrotarra
Larunbata, 31. 17:30.

Sailkapena, futbola:

1. Orioko	39
2. Euskalduna	37
3. Urnieta	35

Eskubaloia, senior maila

1. Maila. 13. jardunaldia:
Leizaran atseden
Amenabar B 26-23 Urnieta

Sailkapena, eskubaloia:

1. Donibane	20
2. Usurbil	17
3. Tolosa	16
8. Urnieta	8
9. Leizaran	8
11. Egia	2

Asteburuko partidak:
Usurbil-Leizaran
Urnieta-Urola

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa

arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

URTARRILAREN 29TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

- Andoain, Bastero**
- “Descifrando enigma”. 19:30, 22:00. Urtarrilak 31. 19:30. Otsailak 1. 19:30, 22:00. Otsailak 2.
 - Haurrentzat: “Alexander y el día terrible”. 17:00. Urtarrilak 31 eta otsailak 1.
 - Zarzuela: “Amor de mi vida” Otsailak 6, ostirala. 20:15.

- Urnietan, Sarobe**
- “Yugo eta Lala”. 16:00, 18:30. Otsailak 1, igandea.

Deialdiak

- Andoain**
- Otaño eta Igerategi guraso presoen alde, bilkura isila. Ondoren, txokolate jatea. 17:00. Bastero. Urtarrilak 30, ostirala.
 - Berdintasun kontseiluaren deialdia Basteron. Otsailak 3, asteartea. 18:30.
 - Buruhandi eta erraldioen konpartsaren deialdia, konpartsako kide izateko. 20:45 Kontsejupea. Otsailak 3, asteartea.

Kaldereroak

- Andoain**
- Entseguak otsailaren 2an eta 4an Berrozpen, 19:00tan. Irteera: 17:00, Ontza. Otsailak 7, larunbata.

Mendeurrena

- Andoain**
- Ekitaldi instituzionala: Burujabetza lortu zuten herrietako agintarien bilkura. 11:00. Udaletxea. Doan. Otsailak 1, igandea.
 - Herri Antzerkia: 12:00. Bastero. 5 euro. Otsailak 1, igandea.
 - Erakusketa: Bastero, erakusketa gela. Otsailaren 15era bitarte.

Zikloa

- Urnietan**
- Gaztedi astea 2015 Urtarrilak 30, ostirala: On Bosko eguneko festa. Otsailak 1, igandea: 11.00 Krosa herrian zehar. Otsailak 7, larunbata: On Bosco, musikala Saroben.

Dantza

- Andoain, Buruntza**
- Axerien puska biltzea Buruntza auzoan. 11:00 Dantza eliza zaharren inguruan. Urtarrilak 31, larunbata.

Batzarra

- Andoain**
- Peña Santa Krutz elkartearen batzarra 10:30etan. Otsailak 22, igandea.

Jardunaldiak

- Urnietan, Sarobe**
- Bake eta bizikidetzak jardunaldiak, II. edizioa. Jardunaldietan izen-ematea Bertan arreta zerbitzuan.
 - Urtarrilak 29, osteguna 19:00 Aurkezpena 19:15 Hitzaldia: “Bizitzako sufrimendu faktorearen errealitatera hurbiltzea”. Iker Uson (Baketik). 20:00 Kafe-hizketaldia. 20:30 Hizlariarekin solasaldia. 21:00 Amaiera.
 - Urtarrilak 31, larunbata 11:00 Aurkezpena. 11:15 Testigantzak: Pili Zabala, Josu Elespe. 13:00 Amaiera.
 - Otsailak 7, larunbata 11:15 Antzerki foruma, euskaraz.

Santa Ageda

- Andoain**
- Tradizioa berrituko du Larramendi Bazkunak. Entsegua: 20:00 Anbrosia Olabide. Urtarrilak 29, osteguna. Irteera: 18:00 Dr. Huitzi. Ondoren, afaria Ontzan. Izena emateko azken eguna, urtarrilaren 29a. Otsailak 4, asteazkena.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Araia Goñik 4 urte eta osaba **Jon Artolak** 24 beteko dituzte otsailaren 8an. Ondo ospatu eta muxu handi bat biontzat etxekoan partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Tiok 92urte. **Tiak** 95 urte. Zoragariak zarete. Milioika muxu zuentzat. Asko maite zaituztegu. Maialen, Iker, Ibai, Imanol eta Julen.

ANDOAIN

ZORIONAK SIS



Aurtengoa zorionak bialdiz! ... zure urtebetetzea delako!... ta azterketa guztik gairiditu dituzulako! Makina!! Segi horrela!

ANDOAIN

ZORIONAK



Nemesiok 66urte bete zituen urtarrilaren 23an. Zorionak etxeko guztien partetik, batez ere Unax, Aner eta Oinatz biloben partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Pablo Rosco Antequerakurte 1 bete zuen urtarrilaren 22an. Milaka muxu potolo. Etxekoak. Aitabxo, amabxo eta Nicolás.

URNIETA

ZORIONAK



Etxeko sorgiñak 2 urte beteko ditu urtarrilaren 30ean eta Aitorrek 30. Marrubizko eta txokolatezko patxoak! Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Lagunen lagun, futbolzale tapilotazalea. I hizkiz hasten da izenata G hizkiz bere abizena. 10 urte beteko ditu hila-ren 31n. Zeinote?

ANDOAIN

ZORIONAK



Maialenek Txilen pasa du urte erdia ikasten, tartean mundua ezagutzen. Piskoa hartu beharko dugu urtebetetze ospatzeko? Zorionak!

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak Iker! Guapoooo eta maitagarriazarelako! 18 urte? Gidabaimena ateratzeko prest? Mua ta mua. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Aritz, jadanik hiru urte bete dituzu. Ongi igaro eguna amona eta aitoren partetik.

URNIETA

ZORION AGURRAK AIURRIN

- diseinua@aiurri.com
- Aiurriko bulegoan

• Aukera berria Whatsapp bidez: 619 163 537.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA OTSAILAREN 6AN ARGITARATUKO DA

Famili ikuskizuna

ERPURUTXO

Euskaraz

TEATRO PARAISO



Otsailak 8, igandea
Sarobe AEG
12:00etan
Sarrera 3 €

Aurresalmenta:
Sarobe eta Lekaio
kultur etxean,
otsailaren 2tik aurrera